

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Sanmielen ostean, Xoxokako jaiak

Datorren astelehenean ekingo diote egitarauari, eta hurrengo hitzordu guztiek jarraipena izango dute urriaren 10etik 13ra / 13

AIURRI

Jaietako argazki-bilduma

Urrietan Sanmielek utzitako onena, irudi bidez jasota / 6-13

Ziako errekarerkin egin antzera, Udalak Miranda pasealekuari buruzko bilera irekia deitu du / 14

"Atearen bestaldean" haur antzerkia, igande honetan Bastero Kulturgunean / 14

Kronika
ERREMONTA JAIALDIA

24-10-11 17:00ETATIK 21:00AK ARTE
GALARRETA JAI-ALAI

SARRERA 14€
PONTADA - EDARRA
"TU UNTEK HENBERKOAK DOAN"

Sarearak, kalgai Kronikan eta egunetan bertan Galarretan

Kronika

ORREAGA | ERREMONTA | BIZKAI

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



IRITZIA

XABIER LASA BERGARA OROIMEN HISTORIKOAREN ALDEKO ERAGILEA

Gogora Institutuan ez dute tokirik Estatuaren biktimek, nonbait

1993an, Guardia Zibileen esku hil zen Gurutze Iantzi gogoratzeko eta berarentzat egia eta justizia eskatzeko ekitaldia izan zen joan den irailaren 24an, Estatuaren indarkeriaren biktimak biltzen dituen Egiari Zor elkarteak antolatuta.

Urnietatik irten gabe, badago zertan lan egina Estatu aparatuek eragindako biktimen aitormen ofiziala administrazio publikoei eskatzeko orduan. Hildako hiru pertsona gogorarazten baitzikigu memoria hurbilak: Joxe Kamio (Madrilgo barne ministerioko mertzenarioen balapean), Juan Carlos Alberdi (kartzela-sistema gizagabearen pean), eta Gurutze Iantzi (Estatu funtzionarioen esku).

1982/01/02an Triple A talde parapolizialak hil zuen Pablo Garaialderen alaba Pilar Garaialdek hartu zuen hitza Urnietako ekitaldian, Egiari Zor-en izenean. Nahiko begi-bistako kexu mingarria agertu zuen, biktimen tratamendu berezitua dela eta:

“Sarritan entzuten dugu biktima guztiei egia, aitortza, justizia eta erreparazioa zor diegula, diskriminaziorik gabe, salbuespenik gabe. Errezegi esaten den esaldia da hau, baina oso zaila Estatuaren bortxa pairatu dutenen milaka kasuetan errealtate bilakatzea...



Pilar Garaialde Egiari Zor elkarteak kidea Urnietan izan zen irailaren 24an, Gurutze Iantziren omenaldian. AIURRI

Estatuak eragindako bortxaren biktima gehienontzat abiapuntua oso da bestelakoa; urte luzeko ukapenaren ondoren, egin zigutenaren egia ezartzeko borrokan jarraitzen dugu, heriotza eta giza eskubideen urraketa bakoitza, salbuespenik gabe, ofizialki erroldatu, aitortu eta erreparatu dadin. Gehienok, salbuespenak salbuespen, ez dugu inoiz justiziarik izan”.

Biharamunean, berriaz, Garaialde bera izan genuen albiste, Gasteizko legebiltzarreko Justizia eta Giza Eskubideen Batzordeak ez baitzuen onartu nahi izan Gogora Institutuko

zuzendaritzako kontseiluko kide izan zedin, hautagaietako bat zen arren. Aitzitik, Batzordeak onartu egin zituen ETak Lasarte-Orian 2001ean hil zuen Froilan Elexperen seme Josu Elexpe, eta, Tolosan 2000an hil zuen Juan Mari Jauregiren alaba Maria Jauregi, Gogorako kontseiluko kide izan daitezen aurrerantzean.

Legebiltzarreko batzordearen erabaki horrek, beste behin uzten digu agerian, biktima guztiek ez dituztela tratatu berbera jasotzen, biktimen kategorizazio edo jerarkizazioa aplikatzen segitzen duela klase politikoak. Labur eta gordin esanda, Maria Jauregi edo Josu Elexpe, Pilar Garaialde baino “biktimagoak” direla, alegia.

Beste hitzetan, biktimen tratamendu ofizialean (politikoa, juridikoa, ekonomikoa...) biktimarioekin jartzen segitzen dela arreta bereziki, biktimek jasan duten giza eskubideen urraketeekin baino gehiago.

Legebiltzarrean frogatu ahal izan da, beste behin, zeinen ezerosoak diren Estatuaren biktimak, indarkeria nagusi izan duen gatazka politikoari begirako kontakizun jakin bat gauzatzeko, noski. Estatuaren eskua ikusten delako, zuzenean nahiz bere konplizitate edo inpunitatearekin aritu diren

talde armatuekin (Triple A, BVE, GAL...).

Gutziz legitimitate osoko ariketa da, nork bere ideologiatik aztertzea gure iragan hurbila, eta egoki ikusten duen moduan kontaktzea. Eta, zergatik ez, aberasgarria ere izan liteke kontakizun anitzen panorama. Ezin baikara inozoak izan, eta bat egin Urnietako erretoreak San Migel eguneko sermoian, Udal gobernuko kideen aurre-aurrean bota zuen ideiarekin: hots, borrokatu behar dugun deabruaren parekoa dela ideologiaren aniztasuna.

Legitimitate osoa behar luke eduki, nork bere jardun politikotik, fundaziotik edo dena delakotik zabaltzea bere ikuspegia.

Ordea, erabat kritikagarria da, nork bere ideologiarekin bat datorren kontakizun hori zabaltzeko, eta inposatzeko bakartzat, erabiltzea erakunde publikoetan (Gogora Institutua, Gasteizko Legebiltzarra eta bere Batzordeak, Nafarroako parlamentua eta gobernua, Madrilgo Kongresua edo senatua, Gasteizko Memoria...) daukan boterea eta presentzia.

Bada garaia klase politikoak gutxienezko zintzotasunez joka dezan, eta albo batera utz dezan ongiletzat jotzen duen diskurtso hipokrita,

kontakizun partekatu eta inklusiboa, zoru etikoa eta abar aldarrikatzen duena.

Ideologia desberdinen kontsentsua ezertan bilatzekotan, hori beharko luke izan giza eskubideen urraketa desberdinak sailkatzerakoan, horiek jasan dituzten pertsona edo kolektiboak identifikatzerakoan, eta, biktimarioei begiratu gabe biktimei dagozkien babesa eta aitortza politiko, juridiko, ekonomiko, psikologiko eta abarra eskaintzerakoan.

Eta eginkizun horretan ere, ez dira gutxi dauden zailtasunak. Hasita, zer den giza eskubideen urraketa eta zer ez zehazterako orduan. Edota, neutroa ez den terminologia aplikatzen den unetik; horrela, legez kanpo jardun duten talde armatuek eragindakoak “terrorismoren biktima”tzat jotzen badira, eta, aldiz, Estatu aparatuek (Polizia Nazionala, Guardia Zibila, Ertzaintza, TOP frankistaren oinordeko diren salbuespenezko epaitegiak edo legediak...) eragindako biktimak kalifikatzen badira “botere-abusuak edo polizia-indarkeria legez kanpo erabiltzeak eragindako urraketen biktima”-tzat edo “motibazio politikoko egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktima”-tzat.

IRITZIA

IMANOL GOENAGA ANDOAINGO EAJ-PNV

Alderdia, Erkizia eta udazkeneko eguzkia

Alderdi Egunaren ospakizunak udaren amaiera sinboliza dezake EAJ-PNVko alderdikide, alderdizale edo jarraitzaile askorentzat. Iraileko azken igandea, nahi ala ez, urtaroen mugarrria da; eguna moztzen hasi baita, gauetan hotz egiten du eta zuhaitzak lehortzen hasten dira. Udazkena iritsi denaren seinale.

Andoaingo autobusa goiztiarra izaten da, Forondako lautadara iristen lehenetarikoa; eta oraindik behelainoa da nagusi. Gau hotza pasa dute bertan akanpaturik egon diren gazteek. Hala, pixkanaka familia jeltzalea osatzen dugun kideak bertaratzen hasi gara eta, konturatzerako, jai eremuko karpa, txosna eta gunek jendearekin berotzen hasten dira; udazkeneko eguzkiak bezala, bazterrak goxatuz.

Egutegian gorritz idatzitako data izan ohi da. Emozionatzen gaituzten sentimendu eta oroitzapenez betea. Nire belaunaldikook ez genuen 1977ko Aralarko edizioa ezagutu, baina etxeko album zaharrean topatu ditut 'Batasuna eta indarra' lemapean egin zen edizio hartako argazkiak. Gurasoek kontatu didate jaio eta hilabete gutxira eraman nindutela lehen aldiz Alderdi Egunera. Gogoan dut umetan, nola



Igandean egiteko berezia izan zuen Joxe Manuel Erkizia, 101 urterekin Forondako oholta handira igo baitzen. EAJ-PNV

Salburuako zelaira joaten nintzen, ikurriña eskuan eta aitonaren ondoan zintzo; mitina eman ondoren, Arzallus handia barra baten inguruan topatzeko asmoz. Ikurriña mosaiko erraldoia osatu genuen urtea benetan berezia izan zen. Gaztetako EGIko lagunarteko momentu ederrak; herriko zinegotzietan agintarien desfilean eskusoinua joz laguntzea; eta tradizio dugun moduan, eguraldi ona ala txarra izan, bazkaria babespean egiteko beharrezko karparen muntaia. Oroitzapen politikak eta momentu kutunak.

Gaur egungo ospakizuna asko modernizatu da eta mitinak streaming bidez ematen dira. Baina bada sentimendu bat Internet bidez

transmititu ezin daitekeena: Forondako zelaian bizitzen eta sentitzen den berotasuna, ilusioa pizteko eta pilak kargatzeko balio duena. Esango nuke oso erakunde gutxi dutela halako mobilizazio-gaitasuna.

Datozen hilabeteotan alderdiak berrikuntza prozesuari ekingo dio, proiektu politikoa eguneratu eta barne erakundeak berrituz. Bada, gutako bakoitzak gure ekarpen xumea dugu egiteko, EAJren herri proiektua aberasteko. Katebegiak gara; inoiz eten ez den katearenak. Alderdi Egunean, gainera, andoaingarrak protagonista izan gara, beste behin. Igandean egiteko berezia izan zuen Joxe Manuel Erkizia

kaletxikitarrak. 101 urterekin Forondako oholta handira igo zen. Proiektu eta herri batekiko atxikipena eta maitasuna taularatu zen; iraganaren jakinduria eta eskarmentua, etorkizuneko ilusioarekin uztartuz.

Pentsa, ez da makala Erkiziarena. Euskadik izan dituen Lehendakari guztiak pertsonalki ezagutzeko aukera izan baitu: Agirre, Leizaola, Garaikoetxea, Ardanza, Ibarretxe, Urkullu, eta atzo besarkada estu batekin, Imanol Pradales. Goizeko emozioak gaindituta, bazkalorduan pozik zen gizona. Burua argi eta bihotza bero, udazkeneko eguzkiak berotzen duen moduan. Bejondeizula, Joxe Manuel!



Elkarretaratzea. AIURRI

Andoaingo pentsiodunen elkarretaratzea Goikoplazan

Adineko Pertsonen Nazioarteko egunaren bezperan, kolektiboarekin kezka agertu zuten

Erredakzioa ANDOAINGO

“Adineko pertsona guztiok eskubidea dugu bizi-baldintza duinak, pensio publiko nahikoak, zerbitzu publiko unibertsalak eta etxebizitza osasungarriak izateko”. Adierazpen berean, pertsona nagusi ahulenez bizi duten egoeratik kezka agertu zuten: “Horietako asko asistentzia-zentroen eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuen erabiltzaileak dira, gutxieneko pensio ziztrinak nahikoak ez direlako eta oinarrizko zerbitzu publikoetan gero eta murrizketa gehiago, pribatizazio handiagoa eta prezio garestiagoak daudelako”.



andoaINDARRA
euskaraz

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Iritzia
Postontzia
Komunitatea

GUNE IREKIA

aiurri.eus



Euskaraldiaren aurkezpena egin zuten Eibarren, aurreko astean. TOPAGUNEA

Euskaraldia, maiatzaren 15etik 25era

Euskaraldia ON! Topaketa egin zuten aurreko astean, Eibarren. Dagoeneko herriek izena emateko aukera dute www.euskaraldia.eus gunean bertan. Norbanakoen txanda, bestalde, 2025eko martxoan izango da

Komunitatea

Euskara elkarten TOPAGUNEA

Ehunka herritan sortutako batzordeek ahalbideratu dute hasieratik Euskaraldia. Aurreko ediziotan 400dik gora herritan antolatu zen ariketa; herritarrek, euskara elkarteetako kideek, udaletako ordezkariak edota entitateetako arduradunek osatutako batzordeek antolatzen dute Euskaraldia herriz herri.

Laugarren edizio honetarako ere egin dute antolatzen hasteko deia “batu eta osatu batzordea, eman izena Euskaraldian!”. Dagoeneko badute herriek, beraz, izena emateko aukera, www.euskaraldia.eus gunean bertan.

Norbanakoen txanda, ordea, 2025eko martxoan izango da; orduan izango dute belarriprest eta ahobizi guztiek Euskaraldian izena emateko aukera.

Euskal Herri osotik etorritako berrehun lagunetik gora bildu ziren aurreko astean, Eibarreko Coliseo antzokian, Euskaraldia ON! Topaketan parte hartzeko.

Euskaraldiaren laugarren edizioa izango da 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo dena, eta Eibarkoa izan da ariketaren lehen mugarrria. Antolaketan ibili diren edo ibiliko diren boluntario, teknikari eta eragileek herritarren aktibazioarako modu eta molde berrien proposamenak entzun zituzten. Izan ere, herrietako mugimendurik gabe ez da Euskaraldirik posible izango. Eibarren irudikatu zuten, beraz, Euskaraldiaren laugarren edizioaren lehen urratsa.

Irati Iciar, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria izan zuen topaketa irekitzearen ardura. “Konbentzitutua nago, handia dela herriz herri elkarrekin egitera goazena”, adierazi zien bertan bildutakoiei. Horrekin batera, Euskaraldia ariketa bera jendea aktibatzen eta saretzeko “tresna ezin hobea” izan daitekeela gaineratu zuen: “Ahalik eta komunitate zabalena jarri nahi dugu dantzan, euskararen alde”.

Garazi Azkuek eta Goiatz Urkijok, Euskaraldiaren komunikazio arduradunak eta koordinatzaileak, hurrenez hurren, hurrengo edizioaren hainbat gako eman zituzten, “gozatzeko, hunkitzeko eta ongi pasatzeko aukerak” izango ditugula nabarmenduz.

Ondoren, Kike Amonarriz eta Manex Agirrerren (Gorbeialdeko euskara teknikaria) txanda izan da. Azken bi hizlariak euskararen bueltan herritarrek aktibatzen gakoak eman zituzten. Herrietan Euskaraldiaren antolaketara kideak batzeko modu berriak proposatu zituzten, eta helburu horrekin aurkeztu zuten “Euskara aktibatzaileen gidaliburua”, Euskaraldiak ondutako gida praktikoa. Gidak emango ditu, beraz, Euskaraldiaren mugimendua sortzeko, osatzeko, sarea irudikatzen, ekintzak antolatzen eta indarberritzen hainbat gako.

Herrien izen-ematea irekita www.euskaraldia.eus gunean.



Aurtengo sagardoaren aurkezpena. SAGARDOZALE ELKARTEA

Sagargileei deia luzatu die Sagardozaleen elkarteak

Sagarra lantzeko interesa badute, sektorearekin harremanetan jartzeko gomendioa luzatu dute

Erredakzioa ANDOAIN

Sagardozaleen elkarteak aurtengo uztaren berri eman du eta agerraldi berean sagargileei deialdi berezia luzatu die: “Datozen urteetarako dei egiten die Euskal Sagardoa Jatorri deiturak sagargileei, sagarra lantzeko interesa badute, alde aurretik sagardogile eta Jatorri Deiturarekin harremanetan jartzeko, akordioak bilatu eta sagarraren gestioa denborarekin lotzen joateko”.

Izan ere, urtez urte geroz eta sagar gehiago ari da izaten bertako sagastietan, dauden sagastiak zaindu eta sagasti berriak aldatu eta produkzioan sartu ahala. Bide horretan, sagarziale eta sagardotegien arteko akordioak lotzen ari da Euskal Sagardoa Jatorri Deitura, “luzerako elkarlana baita bertako produkzioa handitu, sektoreak indartu, produktuak posizionatu eta kalitatea bermatzeko modurik egokiena”.

Iazko uzta handia izaki, aurtengo txikia izatea aurreikusit

zitekeela adierazi dute. Eta nolakoa izango da? Honatx, erantzuna: “Uzta txikiak direnean azukre gehiagoko sagarrak izan ohi dira normalean, baina aurtent, udarako euriak medio, iazko alkohol graduazio antzekoa izango dute. Eurien eraginez, heldutasuna ere nahiko atzeratzen dator eta sagastirik gehienetan datorren astean hasiko dira sagarra biltzen”.

Uzta txikiagoa espero da

Sagarraren bilketa garaia da eta sektoreak adierazi duenez, “heldutasuna atzerago dator sagastietan, sagar gazietan gehienbat. Uzta txikiagoa espero da, ezurtea tokatzen delako batetik, neguan hotz gutxi egin duelako eta udaran egindako bero zakar kolpe batek uztaren parte bat bota duelako. Orokorrean, Gipuzkoan Goierri inguruan sagar gehiago da Beterrin baino, neguan hotz handiagoa egin duelako eta horrek eraginda loral-di hobea izan dutelako sagarrondoek”.



Planoen aurrean eta hainbat tokitan arretaz jarraitu zituzten azalpenak. AIURRI

Ama Kandidako eta Gudarien etorbideetako lanak, aztergai

URA agentziako ordezkariak lanen berri eman zuten andoaindarren aurrean eginiko bisitaldi-gidatuan

Erredakzioa ANDOAIN

Astelehenean auzotar eta herrikide ugari elkartu zen Martin Ugalde Kultur Parkean. Handik abiatu baitzen bisitaldi gidatua, Berrozpeko biribilguneraino luzatu zena. URA Agentziak hainbat azalpen eskaini zituen: obren iraupena, oinezkoen espaloiak,

irisgarritasun irizpideak, erreka zein tokitan joango den lurrazpitik eta zeinean aire librean... Andoaingo alkate Andoni Alvarezek ere hitza hartu zuen bisitaldi-gidatuan. Herrikideez gain, Andoainen ordezkariak duten lau alderdi politikoetako zinegotzi asko bertan izan ziren.



Andoni Alvarez alkatea URA agentziako kideekin eta Udal ordezkariekin batera. AIURRI

Sasoiko ibiltariei oroigarria

"Ibili Andoain" ekimenaren barnean, Maritxu Mendizabal Zendoia eta Luisa Garcia Casado 90 urtetik gorako parte-hartzaileei omenaldia egin zieten, ikasturtearen hasierako lehen irteeran. Oroigarri bana jaso zuten Andoni Alvarez alkatearen eta Haizea Barandiaran Gizarte Zerbitzueta zinegotziaren eskutik.



AIURRI



Euskal dantzak. AIURRI

Euskal dantzak helduentzat, Urki taldearen eskutik

Datorren urriaren 14an hasiko da ikastaroa, dantza taldeak Olagainen duen egoitzan

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal dantzan trebatzeko aukera emango du Urki dantza taldeak ikasturte honetan. Andoainen Olagain auzoan duten egoitzan hasiberrirentzat eta arituentzat ikastaro bana eantolatu dute. Urriaren 14an abiatuko da, maiatzera bitarte, eta dagoeneko izena eman daiteke.

Arituak astelehenero elkartuko dira entsealekuan, iluntzeko 20:00tan hasita. Hasiberriek, berriz, asteartero 19:45etan hasita. Ikasturte osoaren prezioa 110 eurokoa da.

Ikastaroari buruzko argibide gehiago, 629 37 51 47 telefonozenbakira deituta.

IN MEMORIAM

MARIA JESUS FERNANDEZ IZAGIRRE ANDOAIN

Irailaren 26an zendu zen Maria Jesus



Ezkerrean hasita, bigarreana, Maria Jesus Fernandez Izagirre. AIURRI

Maria Jesus Fernandez alarguna zen, eta Arritxu eta Garbiñeren ama zen. Kale Nagusiko beti-betiko auzokide ezaguna zen, guztiz estimatua, eta 2007ko Santa Krutz jaietan pregoilaria izan zen.

Ezagutu dutenek beti nabarmendu izan dute bere jendartekotasuna eta eskuzabaltasuna. Andoaingo historiarekin lotutako memoria joria zuen, eta kontalari atsegina ere bazenez, ekarpen aberatsa egin izan zuen herriko oroimen historikoa bizirik mantendu ahal izan zedin.

Hain zuzen, Andoainen frankistek eragindako biktimetako bat zen, eta eraildako aitaren oroimenari tinko eutsi izan zion beti; besteak beste, gaixotasunak eragotzi zion arte ez zuen hutsik egin Alfaro parkean, "Goiztirian, arimaren garrasia" eskulturaren

aurrean biktimen alde egin ohi den ekitaldian.

Izatez ere, bere aita, Patxi Fernandez Usandizaga, Pantxika Izagirre Salaberriarekin ezkondu zegoena eta hiru urteko Maria Jesusen eta bi urteko Iñakiren aita zena, 1936ko uztailaren 18an kolpe militarra eragin zutenek atxilotu egin zuten, Andoaingo militarki okupatu eta gutxira.

Patxi Fernandez, Errepublikara, euskaltzalea, EAJko militantea eta ELA sindikatuko ordezkaria ez ezik, El Dia egunkariko eta Argia astekariko herriko kronikaria izan zen, eta biografia hori kolpe-zaleentzat delitu larria zenez, Ondarretako presondegian preso eduki zuten lehenbizi, eta urriaren 22an erail egin zuten.

ESKERTZA



Maria Jesus Fernandez Izagirre

Irailaren 26an hil zen

Betirako izango ditugu gogoan zurekin bizi izandako uneak. Eskerrik asko ama, amona eta izeba.

Sendiak bihotzez eskertzen du jasotako doluminak bai eta hileta elizkizunera etorri izana ere.



Uxue Sanchez Larrañagak gorpuztu du, aurtan, txosnaguneko Miela. AIURRI

Gazteak, aurretik

Asteazken iluntzean jendez bete zen txosnagunea, jaien hasiera ospatzeko irrikaz. Herriko produktuak dastatuz ekin zioten Sanmielei, hezur-haragizko Mielak agerpena egin ostean. Festarako gogo nabaria zen

Erredakzioa URNIETA

Asteazkenean ekin zion Txosna Batzordeak ospakizunari, eta nabaria zen urnietaren festarako gogo, makina bat bizilagun bildu baitzen txosnagunean, asteazkenean bertan.

Txupinazo alternatiboa egin zuten, Mielaren jaitziera eta guzti. Horrez gain, tokiko produktuen dastaketa egiteko aukera izan zuten Plazido Muxikara gerturatu zirenek: Altunako sagardoa, Adarrazpiko gazta eta Gurutzetako tomateak eta piperrak



Lehen suziriak asteazken iluntzean jaurti zituzten. AIURRI




Lagun ugari elkartu zen asteazken iluntzean, txosnagunean. AIURRI



Argazki-sorta ikusgai dago webgunean. AIURRI

Mozorroak eta tortilla-lehiaketa



Ez dute inoiz huts egiten. AIURRI

Txanogorritxu, Hansel eta Gretel, Hamelingo txirularia, Kika Supersorgina... Ipuingarria izan zen ostegun gaueko patata-tortilla lehiaketa. Jaien hasiera izanik, festaz gozatzeko gogo berezia antzematen zen urnietarren artean. Ohi bezala, tortillak eta bestelako jakiak dastatu zituzten txosnak zabalik zeuden lehen orduetan.



Hitzordu arrakastatsua izan ohi da tortilla-lehiaketa. AIURRI



UKE eskubaloiko kideek janari postua izan dute festek iraun bitartean. AIURRI

Jana eta edana, txosnagunean

Nekez uler daitezke jaiak txosnarik gabe. Azken urteotan, gainera, UKE kirol elkarteak janari-postua jarri ohi du. Egunotan dozenaka ogitarteko prestatu dituzte bertan lanean izan diren boluntarioek, baita gaueko ordu txikietan ere.



Ohi bezala, jende asko elkartu ohi da jaiaren hasieran. AIURRI



Jaiak hasi orduko zapia soinean zuten herriko txikienek. AIURRI



"Nire lehen Sanmielak" lemapean, harrera egin zieten herrikide berriei. AIURRI

Plaza, gainezka, jaien hasieran

Ostiral arratsaldean San Juan plaza bete zen, guztiak ere Miela kanpandorretik noiz jaitsiko zain zirela. Jarraian, Habitantes de Innsmouth aurtengo pregoilariek jaiaren aldeko mezua zabaldu eta txupinazoa jaurti zuten



Habitantes de Innsmouth elkarteko kideak Udal ordezkariekin batera, pregoia irakurri ostean. AIURRI



Buruhandiak eta erraldoiak ezinbestekoak dira jaietan. AIURRI



Bosko Anitz txarangak saio ugari eskaini ditu aurtengo jaietan. AIURRI



Larunbat goizeko dianan Beterri-Buruntzako txistulariak hurbildu ziren Urnietara. AIURRI

Larunbata festazaleena da

Jende gehien elkartu zen eguna izan zen larunbatekoa. Izan ere, lagun ugari elkartu zen bazkari bat baino gehiago antolatu ziren. Eta, horiez gain, kuadrilla asko elkartu zen taberna eta jatetxeetan bazkaltzeko. Egunik jendetsuena da larunbatekoa



Emakumeen kuadrilla kalez kale ibili zen, Oianumera bazkaltzera joan aurretik. AIURRI



Laurehundik gora lagun elkartu zen txosnaguneko bazkarian. AIURRI



Paella-jatea prestatu zuten txosnagunean bertan. AIURRI



Familia giroko bazkaria egin zuten Egape Ikastolako jolastoki estalian. AIURRI



Hainbat lagun Egapeko bazkarian. AIURRI




Urdanborreko kideak, larunbat arratsaldean. AIURRI



Aurtengo Kontzejupekoan nabarmendu diren kirolariak. AIURRI



Selfiak eta argazkiak ateratzeko aukera beti da ona. AIURRI



Kontzejupeko finalak bereziak izaten dira. AIURRI



San Juan plazan saioa egin zuten, plazan sartu aurretik. AIURRI



"Urnieta" ereserkia jo zuten plazan. AIURRI

2 eta 12 urte bitartekoentzat ibilbidea egokitu zuten Egape ikastolako jolastoki estalian, bizikleta festan. AIURRI



Juanma Zarranz Urnietako Udal Korporazioarekin batera. Udalaren omenaldia jaso zuen salestarrak. AIURRI

Jaietako egun handia

Irailaren 29a egun handia da Sanmieletan, santuarekin bat egiten duelako. Aurten, gainera, igandearekin ospatu da. Udalaren omenaldia, Txanbolin eta Egaperen emanaldia, Manttalen kantu-bazkaria eta herri-kirol erakustaldia nabarmendu ziren




Txanbolineko eta Egapeko kideak emanaldiaren osteko argazkian. AIURRI



Urnietan, bertsoan

Manttaiek kantu-bazkaria antolatu zuen txosnagunean. Bertsoan gonbidatu berezi bi izan ziren: Unai eta Beñat Gaztelumendi anaiak. Iraganeko eta egungo bertsolarien sorta aukeratu zuten kanturako. Besteak beste, Alkaindarrena, Anax aita-emearenak, Txuriarenak... Kantazaunek, bestalde, kantu liburuxka berria aurkeztu zuen egun berean.




AIURRI



Arrutiren erakustaldia

Julen Gabirondok eta Nerea Arrutik herrikideen aurrean erakustaldia egin zuten. Sasoiko daude biak ala biak. Igandean, bereziki, Arrutik bereganatu zuen protagonismo osoa. Izan ere, metro 1 eta 76 zentimetro zituen gerribeltako (76 ontzakoa) enborra ebaki zuen 12:50 minututan. Emakumeen artean, halako neurriko enborrari heldu dion lehenbiziko emakumea dela adierazi zuen Barrenetxea aurkezleak.



AIURRI



Oier Villar Zumalakarregi eta Joanne Cid Dominguez Alkate Txikiak. Haiekin batera Arene Cabanillas Gabirondo dantzaria. AIURRI



Holi festa, Egape Ikastolako patioan. AIURRI



Gogo biziz parte hartu zuten gazteek astelehenero Holi festan. AIURRI

Haurrek ere gozatu dute

Haurren Eguna izan zen joan den astelehena, Sanmielen azken eguna, hain justu ere. Bada, Alkate Txikien izendapen-ekitalditik hasita, haurrei zuzentako egitarau zabala izan zen herrian, egun osoan. Astelehenaz gain, beste egunetan ere izan dute zer gozatu



Bizijolasen eskutik, jolasak, igerilekuko berdegunean. AIURRI



Gaztelekuak nerabeei zuzenduriko ginkana. AIURRI



Magaleko ikasteak, haur danborradan. AIURRI



Katuametsena lan boluntarioa da, konpromisoa zein ardura eskatzen dituen. KATUAMETS

“Katuen superpopulazioa zegoen Urnietan, gu sortu ginenean”

KATUAMETS URNIETAKO ELKARTEA

Katuekin lan egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Pozarren agertu dira, Sanmieletako txekor-jate solidarioan irabazitako dirua beraiantzatzat izango dela jakitean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Zerk bultzatu zizuen elkarte martxan jartzera?

Hutsetik hasi ginen, orain dela zortzi urte, 2016an. Hasiera batean, 20 bat pertsona bildu ginen, guztiak herrikoak. Dena dela, urteen poderioz, geroz eta jende gutxiago izaten hasi ginen taldean. Izan ere, lan boluntarioa da, konpromisoa zein ardura eskatzen ditu, eta gure poltsikotik diru mordoxka uzten dugu. Lan gogorra da katuak zaintzea eta ez du mundu guztiak balio ikusten dugun guztia ikusteko. Gaur egun, nik eta nire senarrak kudeatzen dugu dena.

Ahaztu egiten zaigu katuak ere hor daudela. Gaizki daudenean,

gainera, ezkutatu egiten dira, ez ditugu ikusi ere egiten. Inork jaramonik egin ezean, parasitoak izaten dituzte kaleko katuek, ez dituzte txertoak jarrita eta ez dute albaitaritzaz zerbitzurik. Horrez gain, katuen superpopulazioa zegoen Urnietan, gu sortu ginenean. Herrian, gutxi gorabehera, zazpi elikadura-puntu ezberdinak ditugu eta bada jendea katuei jaten emateko. Azken horien rola oso garrantzitsua da, haiei esker baitakigu zein baldintzatan bizi diren kaleko katuak.

Zein da zuen egunerokoa elkartean? Ez dago egunerokoa zehaztuta, beharren arabera egiten baitugu lan. CER metodologiarekin egiten

dugu lan: harrapatu, esterilizatu eta koloniaraz itzuli. Katu eme bat, batzuetan beste, hiru aldiz erditzen bada urtean, eta aldiro lauzpabost kume izaten baditu, biderkatu egiten da populazioa. Beraz, osasun-kontua ere bada populazioaren kontrola. Gorozkiek, sexu-harremenek, borrokek eta abarrek eragindako gaixotasun asko dago. Estaltzeko sena kentzen badiezu, zirkulua asko murrizten duzu. Kolonia batzuk oso kontrolatuta daude, baina bada oraindik katuak kalean uzten dituenik, abandonatuta. Hortaz, kontrolpean? Ezinezkoa.

Belarrian marka bat daramate gure eskuetatik igarotako katuek, bai arrek, bai emeek, ebakuntza

egin zaiela jakiteko. Behin artatuta, kalera itzultzen ditugu. Baldintzak betetzen dituztenak adopzioan ematen ditugu. Herriko katu guztiak errolatuta daude, eta historiala dute irekita, bai kaleko katuek bai adopzioan ematen ditugunak: orotara, 800 bat katu bizi dira herrian. Kolonian mugitu ohi dira. Bada, talde batean zaharrak hil egiten badira eta kumerik jaiotzen ez baldin bada, kopurua jaisten da. Orduan, beste leku batzuetatik etortzen dira katuak eta kolonia hori birpopulatu dute.

Orain dela gutxi arte, etxean izan ditugu arreta behar zuten katuak. Urnietako Udalak lokal bat utzi digu materiala gordetzeko (eramaileak, kaiolak...) eta katuak izateko. Nolanahi ere, jaioberriak direnean etxean izatea dut gustuko, sozializatzeko eta gizakiekin egotera ohitu daitezen, adoptatuak izan aurretik.

Garbiketa zorrotza izan behar dugu, infekzioak eta gaixotasunen transmisioa ekiditeko. Hartzen ditugun katu guztiei panleukopenia azterketa egiten zaie, oso hilkorra baita gazteen kasuan. Isolamendua behar duten katuak lokalera eramaten ditugu. Bestela, etxean. Abisuak pasa izan dizkigutenean eutanasiak ere ipini ditugu. Ez da erraza, negar asko ere egin izan dugu.

Herria lasai dagoenean egiten dugu lan, hau da, gauean. Gainera, katuak ere ilun dagoenean atera ohi dira ehizan. Garbitu, jaten eman, sendagaiak eman... Askok eta askok barruko nahiz kanpoko parasitoekin iristen zaizkigu, pneumoniarekin, begiak gorrituta, kolpatuta, ahuleriarekin... Sendatu egiten ditugu adopzioarako. Kalera itzuli behar ditugunak, berriz: emeak bizpahiru egun izaten ditugu gurekin; arrak, egun bakarra.

Zein irizpide erabiltzen duzue katuak adopzioan emateko edo kalera itzultzeko?

Katuaren izaeraren arabera izaten da. Adibidez, katu hartu eta gurekin izaten dugu denboratarte zehatz bat. Egundorietan ez bada ukitzen uzten, kalera eramaten dugu bueltan. Horrenbeste urteren ondoren, erraz identifikatzen ditugu.

“Abandonu” hitza aipatu duzu. Denboraren joanarekin aldaketarik egon al da jendeak kalean uzten dituen katuen kopuruari erreparatuta?

Adopzio mailak nabarmenki egin zuten gora pandemiaren garaian.

Ikaragarria izan zen. Lege berria sartu da indarrean, eta, txakurren antzera, mikrotxipatuta, bakanatuta zein parasitorik gabe eta zikiratuta egon behar dira. Hori dela eta, abandonu gehiago ikusi ditugu, ardura baitakar lege berriak eta jendeak ez du beregain hartu nahi. Luzera begira, berez, kalean utzitako katu-kopurua jaitsiko delakoan naiz, katuak duenak kontzientziaz hartuko baitu etxean animalia.

Behin artatuta eta kalera itzuliko dela erabakita, zergatik da garrantzitsua katuak erreskatatu duzuen leku berean uztea?

Horrela izan behar du, bai ala bai. Katu bati ezin diozu koloniaz aldatu, beti toki berera itzuli behar du.

Nola maneiatzen dituzue portaera zailak edo traumak dituzten katuen kasuak?

Kamikaze samarrak gara... Eskua sartu eta barrura. Egia da eskularru bereziak ditugula, lanerako. Esperientziak ere laguntzen du, abila izan behar zara. Garraiatzaileetatik, kaiola handiagok batera eraman ohi ditugu eta, behin kaiolako atea irekita, itxaron egiten dugu, nahi duenean atera dadin katuak. Haginkadaren bat edo beste jaso izan dugu, bai.

Antibiotikoak ditugu etxean eta iritsi bezala kentzen dizkiogu parasitoak. Alegia, etxean egiten dugu “erreskatea”. Egoeraren arabera, albaitariari deitzen diogu. Hiru zentro ditugu begiz jota: Larratxon egin ohi ditugu antzutzek; Urnietako albaitarian, mikrotxipak eta kontsulta arinak egiten ditugu. Egoera itsusi samar ipintzen denean, ostera, Oriora eramaten dugu katuak, Urrumara. Orain hiru hamarkadatik ezaizten dugu elkar.

Astebetean, esaterako, zenbat gautan atera ohi zarete kalera?

Elkartearen lehenengo urtean, astean lauzpabost bider ateratzen ginen, hankaz gora baitzegoen herria. Orain, egoera lasaiago egonda, ahal dugun bezala moldatzen gara, nor bere bizitza pertsonala ere baduelako. Abisuak ere jasotzen ditugu, beste kide batzuen partetik. Horrela, momentuan, ezin badut, ahalik eta azkarren egiten ahalegintzen naiz, biharamunean edo.

Momentu honetan, ba al duzue katurik etxean?

Batzuk, bai...! Bi katu paralitiko izan ditugu, eutanasiatzea zihoztelako eta ez genuelako nahi hori

gertatzerik. Beste katu batzuek ez duten sena pizten zaie paraisiarekin. Orain kateme bat daukagu arazo neuronalekin: jaten irakatsi genion, lau hila-bete bete arte ura eman behar izan genion, edaten ez zekiela... Gezurra badirudi ere, armonia ona dago etxean. Gu ere oso la-saiak gara.

Zaila izaten al da kalean aurkitutako katuei etxea topatzea?

Urtetik urtera, aldatu egiten da. Batzuetan, ez dizu inork deitzen, eta, beste egun batzuetan, lau katu eman dituzu adopzioan egun berean. Arraroa izaten ari da aurtengo kasua, lehen aipatu dizudan lege berriaren ondorioz. 70-100 adopzio egiten ditugu urtebetean, gutxi gorabehera. Katu kumeak etxean ditut eta, bestela, bitartean, gure zentroan egoten dira.

Aipatutako guztiak diru kostua du. Nola finantzatu zuen elkarteak?

Dohaintzetatik bizi gara, gure poltsikotik jartzen dugunetik eta Urnietako Udalak ematen digun diru-laguntza batetik. Apur bat eskasa da, beti behar izaten baitira mantak, kaiolak, garraio-lariak, pentsua, hareaa... Egia da Udala duela bi urtetik kontzientziatuago dagoela. Berez, Udala da udalerrian dauden katu guztien arduraduna. Edo, bestela, enpresa edo elkarteren bat kontratatu behar du kudeaketaz arduratzeko. 2017tik lokal bat aritu gara eskatzen; aurtengo ekainean lortu dugu.

Zer egin kalean ondoezik dagoen katu bat aurkituz gero?

Bi aukera daude: edo elkartearen zenbakira deitu (613187159), edo Udaltzaingoari. Ondoren, beraiek gurekin jarriko lirake harremanetan.

Zer egin behar da zuen elkarteak boluntario izateko?

Boluntario izateko hamaika modu dago. Oso ondo datorkigu albatarrira katuak eramateko prest dagoen jendea, lokaleko katuez zaintzeko, gauean kalera ateratzeko, harrera etxeak... Ardura handia dakar gure eginbeharrak, nahiz eta gustura egin.

Zein aholku emango zenioke lehen aldiz katu bat hartzeko asmoa duen pertsona bati?

Kolorea, tamaina, adina... Beti esan ohi dut, ez garelako irizpide horietan jausi behar; katuaren izaerari erreparatu behar zaio, baita adopzioan eramango duen pertsonaren beharrei, konpromisoari eta eskarmentuari ere.

ARROSARIOKO AMA BIRJINAREN JAIAK



Dupla taldea larunbat gauean ariko da zuzenean. AIURRI

LARUNBATA 5

09:00-13:00 Auto Klasikoan VI. Ibilaldia, Idiazabal kalean.

11:00 Bertso-kalejira eta irrintziak, Bagararen eskutik.

13:00 Irrintzi erakustaldia plazan, Bagararen eskutik.

18:00 Dantza emanaldia, Egape Dantza Taldeak antolatua.

18:00 Esku pilota jaialdia Udala Pilotalekuan.

18:00 Kontzertua: Agirre Taldea Elkartearen Etxean.

23:00 Dupla San Juan plazan.

00:30 Disko Nemux Idiazabal kalean.

IGANDEA 6

12:00 Meza Nagusia.

12:00 Munduko ardoen dastaketa Kontzejupean.

12:30 Dantza emanaldia, Egape Dantza Taldeak antolatua.

18:00 Asma ezazu... AEK-ren erroka San Juan plazan.

18:00-20:30 Txekor jatea eta sagardo dastaketa plazan.

18:00 Erromeria Iratzar taldearekin, plazan.

18:30 Willy Etxeberria zesta punta jaialdia Udala Pilotalekuan.

18:30 Martin Mujika Erremonte Jaialdia Udala Pilotalekuan.



Urnietako
udala

XOXOKAKO JAIAK

ASTELEHENA 7

12:00 Festen hasiera.

12:30 Herri Kirolak: Beñat Telleria Eta Julen Gabirondo - Xabat Olaizola Eta Ugaitz Mugerza. Ondoren, herriko trikitilariak.

14:00 Bazkari herrikoia Amets Arzallus eta Andoni Egaña bertsolariekin Adarra jatetxean (tiketak bertan salgai).

21:00 Afaria Xoxokako eskolan. Bakoitzak berea eramanda.

OSTEGUNA 10

20:30 Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan. Jatekoa bakoitzak berea eramanda. Edaria doan.

22:30 Gau Sorpresa.

OSTIRALA 11

18:00 Herri Kirolak-Crossfit: Xoxoka vs. Asteasu.

20:30 Bertso afaria. Xoxokako plazan Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldiarekin. Txartelak Adarra eta Guria tabernetan salgai daude.

01:00 Komerik erromeria.


02:30 Gaupasa DJ Infernurekin.

LARUNBATA 12

11:30 Hamaiketako Xoxokako eskolan.

11:30 Gaztelu puzgarriak haurrentzat.

12:30 Aizkora erakustaldia. Unai Etxeberria "Osinalde" eta Malen Barrenetxea // Laiene Pikabea eta Igoi Pikabea
15:00 Mus azkarra



DJ Oier Mendizabal. OIER

Txapelketa Xoxokako eskolan (izena emateko epea 14:15-14:45).

16:00 Gaztelu puzgarriak haurrentzat.

17:00 Andoni magoa: "DesOrekatua" ikuskizuna.

17:30 Toka eta karabina txapelketa eskola ondoan (izena emateko epea 16:45 - 17:15, bertan). Jarraian txokolata, haur guztientzat.

20:30 Betizu jatea, Xoxokako plazan. Txartelak Adarra eta Guria tabernetan salgai.

00:30 Gaupasa Bide batez taldearen eskutik.

03:30 DJ Oier Mendizabal.

IGANDEA 13

12:00 Egape Dantza Taldearen erakustaldia.

13:00 Meza nagusia.

17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.

18:00 Sagardo-dastaketa.

20:30 Festen amaiera.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Ño!

Maitane Gartziandia ilustratzaileak eta Miren Artetxe eta Eli Pagola testuen egileek, bertso saio baten bueltan gerta daitezkeen hamar eszena jaso dituzte.

Bastero Kulturgunea.

IKASTAROAK

ANDOAIN Jabekuntza Eskola

Eskaladako hastapena, Batukada feminista, arte garaikidea eta feminismoa, sendabelarrak...

hainbat ikastaro abiatuko dira.

hurrengo astean

Infomazioa:

Berdintasan Saila.

JAIK

URNIETA Ospakizunak

Dupla, Disko Nemux, Egaperen dantza emanaldia, txekor-jatea... hitzordu ugari datorren asteburuan. Egitaraua 13. orrialdean.

Urriak 5 eta 6.

AISIALDIA

ANDOAIN Parketarrak

Euskaraz jolasteko ekimena berriro martxan jarri du Euskara lansailak. Arratsaldeko 17:00tan hasita, Andoaingo bi plaza ezagunetan.

Urriak 8, Goikoplaza.

Urriak 9, Zumea plaza.



Sandra Fernandez Agirre eta Unai Zelaia igoko dira oholtzara. AIURRI

ANDOAIN "Atearen bestaldean" haur antzerkia

Ikuskizuna testurik gabea da, zuzeneko musikarekin, familian ikusteko modukoa. Bereziki 4 eta 8 urte arteko umeei zuzendua dago, eta pertsona guztiok egoera okerrenak gainditzeko dugun gaitasunari buruz dihardu.

Urriak 6, igandea. 12:00. Bastero Kulturgunea.

IKUSKIZUNA

ANDOAIN Aurkezpena

"Txalaparta" Kukai taldearen ikuskizun berriena Andoainera iristear da.

Urriak 11, ostirala.

19:30, Bastero.

LEHIAKETA

ANDOAIN Argazki-lehiaketa

Andoaingo Udalak 2025eko egutegia osatu nahi du eta horretarako lehiaketa antolatatu du.

Gaia honako hau da: "Merkataritza Andoainen".

Lanak aurkezteko epea: Urriak 31.

MANIFESTAZIOA


DONOSTIA Txirrindulariak

Dimisioa aurkeztu duen txirrindulari federazioko lantaldeak deituta, Trafiko zuzendaritzatik jasotzen dituzten oztopoak salatzeke. Denborialdia kolokan dago.

11:00, Belodromoa.

Urriak 13, igandea.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Ei 47


Urriak 5, lar.
19:30.
Urriak 6, ig. 19:30.
Irailak 7, astel.
17:00, 19:30.

Buffalo kids

Urriak 5 eta 6.
17:00.

La infiltrada

Urriak 12, lar.
19:30.
Urriak 13, ig.
19:30.
Irailak 14, astel.
17:00, 19:30.



SINOPSISIA

Ei 47

Zuzendaria: Marcel Barrena. **Gidoia:** Marcel Barrena, Alberto Marini. **Aktoreak:** Eduard Fernandez, Clara Segura, David Verdaguer, Zoe Bonafonte... **Herrialdea:** Espainia (2024).

Hizkuntza: Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 110 m.

Benetako gertaeran oinarritua

Manolo Vital 47. lineako autobus-gidariak busa bahitu du, Udalak behin eta berriz errepikatzen zuen gezur bat desmuntatzeko: autobusek ezin zituztela Torre Baro barrutiko aldapak igo. Matxinada-ekintza horrek aldaketarako katalizatzailea

zela erakutsi zuen, pertsonak sustraiez, auzoaren borrokaz eta 70eko hamarkadakoartzelena modernoa sortzen lagundu zuen langile-klaseaz harro zeudela.

Eduard Fernandez aktore bikaina ari da protagonista lanetan.

Miranda pasealekua ardatz izango duen bilera deitu dute

Andoaingo Udalak antolatuta, datorren urriaren 8an izango da Bastero Kulturgunean, 18:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko gobernu taldeak herrikideekin partekatu nahi ditu udalerrian intereseko diren eremuak eta etorkizuneko egitasmoak. Aurreko astean URA Agentzia gonbidatu zuen Ama

Kandida etorbidera, eta euskal agentziako ordezkariak hainbeste buruhauste sortzen ari diren lanen berri eman zuten.

Ildo beretik jarraitu nahian, datorren asterako Miranda pasealekua ardatz izango den bile-

ra deitu dute. Asmoa ohar bidez azaldu zute: "Andoaingo Udalak pasealekuaren erabilere eta aukerei buruzko hausnarketa-prozesu bati ekin zion maiatzean, diagnostiko bat osatzeko helburuarekin, eta hortik abiatuta, etorkizuneko ildo estrategikoak ezarri ahal izateko. Bada, prozesuaren emaitzak ezagutzeko unea iritsi da: datorren asteartean izango da, 18:30ean hasita. Denok osatzen dugu Andoaingo eta guztioi dagokigu gure espazioak definitzeko aukera izatea".



Miranda pasealekua. AIURRI

2025eko Udal egutegia osatzeko lehiaketa abiatu du Udalak

Saridun bakoitzak 150 euroko saria jasoko du, Salkin elkarteko dendetan gastatzeko

Erredakzioa ANDOAIN

“Merkataritza Andoainen” da zortzigarren edizio honetan aukeratu gabeak izan behar dute eta egile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ditzake.

Aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da. Izen-ematea www.andoain.eus webgunearen bitartez egin behar da. Lehiaketako irabazleen berri, aldiz, azaroan emango dute. Lehiaketan 16 urtetik gorakoek parte hartu de-

zakete. Xehetasun gehiago Udal Artxiboan emateko prest dira. Ezaguna denez, Gabonen atarian herritarren artean banatzen da egutegia. Egitasmoa martxan jarri zenetik, Udalak herritarren parte-hartzea sustatu nahi du.

Lehiaketara aurkeztu beharreko argazkien xehetasunak

Formatoa, horizontalean; 2-10MB arteko tamainakoa; argazkiaren zabalera: 4350 px /altuera 2900 px; Bereizmena, 300 ppp; formatua: Adobe RGB, JPG.



Udal egutegia kalitate handiko paperean argitaratzen da. UDALA

Parketarrak

Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean

Andoain

Urriak 8, 15, 22 eta 29
astearteak Goikoplazan

Zabu-Zibu (Helduekin)
(3-5 urte) 17:00

Txirrintxon
(6-9 urte) 18:00

Urriak 9, 16, 23 eta 30
asteazkenak Zumea plazan

Zabu-Zibu (Helduekin)
(3-5 urte) 17:00

Txirrintxon
(6-9 urte) 18:00

hezen

arisialdi euskaltzatea

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa




BERTSOZALE

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetan aritu ziren Gaztelumendi eta "Anatx", aurreko asteburuan. Gaztelumendik lortu du final-laurdenetarako sailkapena eta "Anatx" Azpeitiko azken final-zortzirenetako saioaren zain dago. Bertako puntuaketak erabakiko du sailkapena.



BERTSOZALE

Ansa banakako txapeldun, bigarrenez



ORIAMENDI

Imanol Ansa erremonteko banakako txapela jantzi zuen, Endika Barrenetxea 30-26 garaituta. Bere bigarren txapela irabazi du eta palmaresean Barrenetxea IV. berdindu du. Datorren urtekoak izango du bere xarma, biek ere hirugarrena lortzeko aukera handiak dituztelako. Txapela irabazita, Sanmieletan egin zuen ospakizuna.

Ansaren adierazpenak

Finala amaitu berritan honako hauexek izan ziren urnietarraren lehen hitzak: "Txapela irabazi eta nire ingurukoekin ospatzeko aukera izatea da aberasgarriena eta poza ematen didana. Nahiz eta 23-16 galtzen joan oso kontzentraturik nengoen. Behin partida irabazita, txapela anaiari eta kuadrilakoei eskaintzen diet. Aurten bereziki babestu didate eta anaiak esan zidan bigarren txapela jarraian irabazten banuen oso harro egongo zela".

ANDOAINEN, HILABETE HONETAN,

GAU BELTZA

URRIAK 31, OSTEGUNA

*Kalabazak hustu, kandelak piztu, beldurra eragin eta iluntasuna bizi!
Eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat...!*

Txokolate beroa, antzerkia, dantza, kalejira, talo-jatea,
zezen suzkoa... eta Larramendi Bazkunaren itsulapikoa!

